

Bertso Eskolak 25 urte

Argazkia: Hernaniko kronika.



2006ko apirilaren 29an Hernaniko Bertso Eskolak 25. urteurrena ospatu zuen, bertatik pasatako belaunaldiak Larre Gain sagardotegiko bazkarian batuz. 70 lagun inguru elkartu ziren, eta belaunaldi berrireneko Asier Azpiroz "Azpi"k horrela definitu zuen han sentitutakoa: "gu iritsi baino lehen jende askok lan egin duela, eta harrituta geratu nintzen, bertan ibilitakoak zirela ez nekien jende asko ezagutzen bainuen". Bazkari horretako helduenak ziren Aterpe eta Garin bertsolariei, berriz, kontrakoa gertatu zitzaizen: "Batek eta besteak kasu egin, eta guk ez ezagutzen zein diren!". Bazkalostean bertso saioa osatu zuten denen artean: belaunaldi bakoi-tzeko bizpauru bertsolarik euren garaiak kantatu zuten. Beñat Gaztelumendi gaztearentzat: "sekula kantatu dudak plazarik zailena izan zen", aurrean entzuten hainbeste bertsolari egonda. Baina zaharrenek ez zuten saioa Larre Gainen bukatu: Zikuñagako Txintxua Hotelean geratu ziren Arrieta, Kanpozabal, Gregorio, Olazar, Garin eta Anatx, eta han ere izan zen ziri errimaturik.

Nola elkartu ditu bertso eskolak hainbeste belaunaldi eta pertsona? Argazkiko helduenek eutsi zioten gerra ostean Hernaniko bertsozaletasunari, eta gaurko argazkia 1981eko Amurizaren ikastaroak bota zuen flasharen ondorio da...

GERRAOSTEA: ETXEAN TRANSMITITU ZEN BERTSOZALETASUNA

Ereñotzu auzoko Latxe baserrian jaio zen 1860an Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" bertsolari handia.



Jose Manuel Lujanbio "Txirrita", 1860-1936.
(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

1936an hil zen, gerra hastear zela, bertsolarien txapela jantzita, eta Hernanik geroztik ikur duen jenioa galdu zuen.

Franco garaian abertzaletasunak, euskarak eta bertsoak kontu handiz agertu behar izaten zuten jen-



Paulo Zubiarraín "Hernani Txikia", Uztapideren ondoan.
(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

daurrean. Antton Garin bertsolariak gogoratzen du nola "beti bi Guardia Zibil egoten ziren bertso saioak entzuten, ezer ulertzen ez bazuten ere". 1945 urte inguruan Paulo Zubiarrain, "Hernani Txikia" zen Hernaniko bertsolari ia bakarra, baina ez nolanahikoa, Txirritarekin umetan kantatutakoa eta Uztapiderekin eta gainerako bertsolari handiekin makina bat saio egindakoa baitzen. Hernaniko Fernando Iturraldekin laguntzen zion herriko festetako saioetan, baina gainerako bertsolariak beti kanpoak izaten ziren, herrikoen faltan.

Bertsolaritzak herritarren oroimenean sendo iraun zuen urte hauetan. Julian Ezeiza "Aterpe" bertsolaria da memori aberatseko belaunaldi horren eredu-tako bat. Berak kontatzen duenez, "Santa Jenobebarenak izan ziren buruz ikasi nituen lehenengoak, 9-10 urterekin. 1.000 bertso inguru ikasiko nituen buruz nire bizitzan, gehienak liburuetatik". Hernanin bertsolaritza sustatzen lan handia egindako Juanjo Uriak ere, Txirrita ia bertatik bertara bezala bizi izan zuela kontatzen du, bere aitona Juan Joxe Zubiarrainek haren bertso eta istorio denak erakutsi baitzizkion "Gure aitona bertsoan ez zuen apenas egiten, ez zen bapatean ausartzen. Baina oso kontalari ona zen, eta Txirritaren bizitza ikaragarri ondo ezagutzen zuen, hargina zelako, haren laguna eta lanean leku askotan egokitutakoa. Paulo Tikiaren lagun handia ere bazen". Juan Joxe Zubiarrain Txirritarekin bizi izandakoa izaki, Antonio Zabalak Txirritari buruz ateratako liburuari ere zuzenketak egiten omen zizkion. Uriak liburua erosi eta aitona kantatzen zionean, hark: "Ez, bertso hori ez dago ondo, Txirritak kantatzen zuen nik esaten dudana bezala!". Aterpek ere, bere aitagarreba zuen Juan Joxe Zubiarraini behin baino gehiagotan entzun omen zion Txirritaren filosofia "lan asko ez dek earra, eta gutxi're ez dek-ba earra, hobena batez!". Bertsolari handiaren bertso eta istorio horretatik piztu zitzaion Uriari bertsozale-tasuna: "asko gustatzen zitzaidan Txirritak zer gau-

za esaten zituen, haren kutsu politikoko bertso batzuk entzun, eta kontrakoak, zirrikakoak entzun, eta harrituta geratzen nintzen, nola zen posible hain lerro gutxitan hainbeste gauza esatea". Antton Garin bertsolariak ere etxetik jaso zuen bertsoarako "bedeinkapena": bere aitona egiten zuen bertsoan, eta aitona aitak, berriz, ikaragarri: Olegario Garin berbera zen, Pello Errotarekin eta Txirritarekin aritutakoa.

FRANCO HIL ZEN, ETA SAIOAK BERPIZTU

Santa Agedako errondak Hernaniko bertsozale-tasuna mugiarazteko garrantzi handia izan zuen garai hartan: Tturko eta Mikel Arozamena aritzen ziren bertsoan errondan eta ondoren Euxebio Igartzabal, Gabirikoa, aritu zen, 7 urte baino gehiagor. Antton Garinek aitortzen duenez, "lan handia egin zuen Igartzabalek. Aterpek eta biok haren ondoan koplak kantatzen genuen, eta bertsoa berak". Pixkanaka herriko biek mikroari beldurra galdu zioten eta bertso osoak kantatzen hasi ziren. Hala, handik urte batzutura Igartzabalek txanda emateko erabaki zuen, "Hernaniko lanak egiteko biak nahiko zirela eta". Garinek argi du bertsolaria kalera ateratzea zein garrantzizkoa den: "Mikrofonoari beldurra galdu behar zaio, eta gainera kaleak asko irekitzen du pertsona". 1975-76an hasi ziren Aterpe eta Garin Santa Agedako errondan, eta Aterpe 1992 arte ibili zen, 17 urtez beraz. Oso oroimen ona du: "Zinkoenean urte osoan izaten zuten ardorik onena orduan ateratzen ziguten".

Urteko beste zita jakinak Hernaniko ia auzo denetan egiten ziren festak ziren, eta euskal kutsua emateko herri kiroletan eta bertsoan arituko zen koadrila elkartu zen: Aizkoran Larrabide eta Arkaizpe, harri-jasotzen Kinito eta Pakito, bertsoan Argiñarena, Joxe Anjel Tapia, Xanxanategi, Otsua, Aterpe eta Garin... Joxe Mari Arrieta aritzen zen hauei gaiak



1979an, Hernaniko lehen txapelketa Elurtxori elkartean. Antton Garin, Julian Aterpe, Xanxanategi, Tapia eta Marraka aritu ziren kantuan, Joxe Fermin Argiñarena gai-jartzen eta Joxemiel Argiñarena, Juanjo Uria, Iñaki Aranzadi eta Bixente Zubiria epaile. (Argazkia: Antton Garin).

jartzen, normalean. "Festetako eguerdia guk betetzen genuen" gogoratzen du Garinek. Herriko festa denak pasatzen zituzten: Santa Barbarako San Inaziotan 1978an kantatu zuten lehen aldiz Aterpek eta Garinek, Antziola, Portu, Karabelen behin ere bai, Florida, Elkano, Zikuñaga... Joxe Mari Mujika "Anatx" gaztea ere 17-18 urterekin gehitu zitzaion aurreko belaunaldiari erronda eta festetan. Ereñotzun eta Txintxuanean, aldiz, bertsolari onenak izaten ziren: Lazkao Txiki eta Manuel Lasarte... Baina Aterpek kontatzen duenez, "Guk ere noizbehinka kantatzen genuen zerbait haiekin. Joxe Mari Arrietaren ezkontzan, esaterako, Joxe Agirre eta Manuel Lasarterekin kantatu genuen". Juanjo Uriak ere, orain Hernaniko saioetan herriko zenbat bertsolarik kantatzen duten ikusita, orduko egoera erabat desberdina zela gogorarazten du: "Pentsatzen genuen Hernanin bertso saioak egiteko beti kanpoko bertsolariekin aritu beharko genuela. Aterpek eta Garinek bete zuten ondorengo belaunaldia etorri arteko hutsunea".

Hernaniko 2 txapelketa ere egin ziren, bertsozaletasuna mugitzeko. 1979ko azaroaren 3an jokatu zen lehena, Elurtxori elkartearen. Antton Garin, Julian Aterpe, Xanxanategi, Tapia, Marraka ("berezkoa handia zuen, eta oso ahots ona", Aterperen hitzetan) aritu ziren kantuan, Joxe Fermin Argiñarena gai jartzen eta Joxemiel Argiñarena, Juanjo Uria, Iñaki Aranzadi apaiza eta Bixente Zubiria epaile. Aterpe izan zen Hernaniko lehen txapelduna. Bigarren txapelketa, berriz, 1980an jokatu zen Peña Otaño elkartearen, eta Argiñarenak irabazi zuen. Urte berean, Usurbilen kontrako desafioa jokatu zuen Hernanik. Galarretan izan zen saioa, eta 1.000tik gora entzulek frontoia bete zuten. Gai-jartzen Joxe Mari Iriondo aritu zen eta Hernani defendatzen: Aterpe, Olano, Garin, Tapia eta Argiñarena bertsolariak. Usurbilen izenean Antton Aranburu, Lertxundi, Aiaola, Pana eta Oiloki aritu ziren eta Usurbilek irabazi zuen.

Hortik kanpo, Zinkoenea zen bertsozaleen elkargune garrantzitsuenak. Aterpek famatzen duenez: "Zinkoenea tabernako Inazio aitonak berak ere, poliki egiten zuen bertsotan". Garinek gogoan du nola "Zinkoene tabernako balkoitik balkoira aritzen zen Azpeiti deitzen zitzaion bertsolari bat, lehen pisuan bizitzen zena, eta Carrocerias Hernani gaineko terrazatik besteak erantzuten zion". Garai hartako bertso giroa tabernari eta festari lotua zegoela berresten du Anatx bertsolariak ere: "15-16 urte nituen nik eta tabernan bertsotan hasi eta meriendatuz, jende asko izaten zen entzuten atzetik. Ostegunetan Xamalbide etortzen zen azokara eta Zinkoenean eta Juxton aritzen ginen bertsotan. Baita ere Azurmendin, Egañanean, Amerikanuanean... Noiznahi aritzen ginen, iluntzetan, lanetik etorrira. Astebukaretan leku askotatik etortzen zen jendea: Oiartzungo Xalbador Tapia, Lasarteren semea...". Garinek ere ez ditu ahazteko ibilera haiek: "Tturkok tabernan harra-patzen bazintuen gaueko 23:00etan, 2:00ak arte bertsotan aritu beharra zegoen!".

Baina, bertsoa taberna girotik prentsara eraman zuen Basarri bertsolari eta kazetariari ere bidaltzen zioten hernaniarrek bertso jarririk, *Diario Vasco* egunkariak "Nere bordatxotik" atalean atera zezan: Aterpek gogoan du nola Usurbilgo Panak, Joxe Mari Arrietak eta hirurek bertso paperak idatzi zituzten, elkarri erantzunez. Egunkari berean, Aterpek Hernaniko jende askori buruz ere jarri zituen sailak: Don Eusebiori, Uztargileari, Agirretxe fraileari, Eltzekondori...



2005eko Bertso Latan, Julian Aterpe eta Antton Garin omendu ziren, urtetan herriko bertsolari egindako lanagatik. (Argazkia: Hernaniko kronika).

1981, AMURIZAREN IKASTAROA: BERTSO MUGIMENDUAREN SORRERA

1981ean, Juanjo Uria Hernaniko alkate zela, udalak Xabier Amurizaren ikastaroa antolatu zuen. Ikastaro hura izango zen bertso eskolaren oinarria. Ez Hernanin bakarrik, Euskal Herri osoan ere garai horretan sortu ziren lehen bertso eskolak, besteak beste Amurizaren hitzaldien ondorioz.

Frankismo osteko lehen urte haiek ziren eta ez zegoen egiturarik ezertarako. Uriak gogoratzen duenez: "Kezkatuta zegoen jendeak zerbait egin nahi zuen euskara, bertso, kultura esparruan... Mugimendu horren guztiaren atal bat izan zen bertsoarena. Egin beharra zegoen zerbait, kultur eta politika mailako kezkek zeudelako. Ikastaroan ikusi zen herriko jendeak zuen nahia bat eta ilusio hori".

Amurizak 1981eko azaroaren 11n eman zuela lehen klasea ondo gogoan du Anatxek: "erreziboa ere jaso nuen, 2.000 pezetakoa". Amurizak klasea astero eman zuen, bi hilabetez. Bildutako jende kopuruaz galdetuta oso zifra diferenteak jaso ditugu, baina denek gogoratzen dute Udaletxeko goiko aretoa gainezka. Oso maila, edade eta mota desberdineko jendea bildu zen, eta herrikoak ez zirenak ere bai.

Bitxia da nola ikastaro hartan egondako edonori galdetu, eta oso garbi dituzten gogoan maisu haren azalpenak, ia hitzez-hitz. Amurizak ikastaro horretan azaldu zuen teoriak bertsolaritza irauli

zuen. Izan ere, berak bertsotan egiten ikasi daitekeela defendatu zuen, eta ordura arte barneratuta zegoen ustea zen bertsolariak berezkoa zuela bertsotan egiteko gaitasuna Amurizak oso ondo esaten zuen: "jaio egin behar dela? Gu jaio gaituk, bentaja hori bazeukeagut!". Bertsoa zer den horrela azaldu omen zuen, Uriak gogoratzen duenez: "Arau batzuk ditu eta horiek bete behar dira ahalik ondoen. Arauak betez esan daitezke oso zentzu gutxi duten gauzak, eta zentzu handia dutenak. Zentzu gutxi dutenak esatea errazagoa izan liteke, baina hala eginda ere jada osatu duzu bertsoa. Noski, hurrengo pausoa izan behar du zentzu handia dutenak osatzea".

Ez pentsa ikastaro bakarrean bere teoriak komentzitu zituenik. "Bertso eskola martxan hasita ere, bertsotan ikasi ote zitekeenaz jende askok duda handiak izan genituen urte askotan", aitortzen du Uriak berak.

Teoria mailan bakarrik ez, ordurako bertsotan egiten zutenentzat ere erabakiorra izan zen Amurizaren ikastaroa: Anatx, esaterako, Gay Mur eskolan aritu zen ikasten, eta Xabier Agirre maisuak lagunduta, jendaurreko lehen bertsoak han kantatu zizkion jubilatutako maestrari. Bere kasa jardunda ikasi zuen bertsotan, baina beretzat ere Amurizaren ikastaroa erabakiorra izan zen: "Amurizak lotsa galtzeko sistema ekarri zuen: bota arrazoiak, esaten zigun. Ez zuen errimak eta neurriak justua beharko, baina kantatuz eta erantzunaz aritu behar zen". Aterpek ere aitortzen duenez: "Bertsotarako bidea Amurizak jarri zigun. Amurizak asko erakutsi zuen, bukaerak nola prestatu, eta bertsoaren mamilia izaten zela erdiko zatia ez edozer gauzarekin eta zaborrarekin betetzea, baizik gauza justuarekin". Garinek garbi du zertan lagundu zien lehendik aritzen ziren bertsolariei Amurizak: "Guk berez, konturatu gabe egiten genuena, berak azaldu egiten zuen nola eta zergatik".

Ikastaroa izan zen txispa bertsotarako giroa eta mugimendua pizteko. Horrela, Amurizaren ikastarotik etorri ziren gaur egun oraindik Hernaniko bertsolaritzaren bi zutabeak direnak: ikastoletan eta eskoletan ematen ziren bertso klaseak, eta gazteek euren kasa bilduz Udaletxean egiten zituzten asteartetako bilera edo saioak. Gaur herriko bertso eskola dago, ez ikastetxe bakoitzeko eskola bat. Eta asteartetako bilerak ere oraindik bizi-bizirik dirau, *Iraulio Panttalone* izenarekin.

Umeei bertsotan irakatsi, eta behin ikasi dutenean jarduteko eta antolatzeke talde bat izatea formula eraginkorra dela ikusi da Hernanin. Bertso eskola falta balitz, belaunaldi berrien falta sumatuko genuke, eta *Iraulio Panttalone* gabe bertsotan egiten duten askok ez lukete jarraitzeke motibaziorik izango, inguruan koadrilarik eta girorik ez balute. Zeresanik ez, bertso eskolaren eta *Iraulio Panttalone* taldearen arteko zubia ondo lotzea ezinbestekoa da, bertsolaritzaren transmisio zikloa betetzeko.

1982-GAUR ARTE. ASTEARTETAKO BILERA

Amurizaren ikastaroan bildu ziren gazteetako batzuek, ondoren ere biltzen jarraitu zuten. Udaletxean elkartzen ziren, eta goiko geletako batean sartuta aritzen ziren: Anatx, Iñaki Aranzadi apaiza, Usurbilgo Juan Mari Etxabeguren eta Nikolas eta Joxemari Izeta, Pablo Joxe Aristorena, Jon Eizmendí, Aterpe eta Antton Garin, Otaño... Mahaiaren bueltan jarrita, txanda etortzean kantatzea zen hango legea "baina txanda pasa eta bi aldiz segidan kantatzea ere maiz izaten ziren" kontatzen du Anatxek. Batere gairik gabe, librean aritzen ziren, eta gaiekin sariketa eta txapelketa boladan bakarrik aritzen ziren, entrenatzeko.

Denborarekin, taldea gutxituz joan zen eta bolada handia egin zuten Aristorenak eta Anatxek bakarrik bilduz. Anatxen hitzetan, "Askotan egin ditugu 3 orduko saioak, nazkatu arte. "Jendea etorriko dek, hasiko dek jendea bai, eta ez diagu galdu behar" pentsatuta eusten genion astearteroko martxari". Eta etorri ziren, bai, belaunaldi berriak asteartetako bileretara. Jokin Soroazabal eta Oñartxabal hasieran eta geroago, 1991 aldera Manu Gomez, eta gaztetxoak ziren Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin, Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Juanjo Usarraga, Maialen Lujanbio, Laxa... Jende asko pasa da bilera horietatik, Koldo Aldalur eta Pello Zubiria ere bai, esaterako.

Joxe Luis Urdangarinek ederki gogoratzen ditu mahaiaren bueltan eseri eta txanda iristean kantatu beharrak gaztetxoei ekartzen zizkien hestuasunak: "Ez zen azalpenik ematen, eta denak begira zenituenek, edozer gauza baina bota egin behar zen. Gu ohituta geunden ikastolako perfektzionismoarekin, eta iruditzen zitzaigun ez baziren 7-6 silabak ondo neurtzen eta errima asko hestutzen ez zela bertsoa; eta hor ikusten genuen bertsotan egitea ez zela hori. Hestuasun handiena zera izaten zen: 5-7 lagun izanik denbora izaten genuen bertsoa pentsatzeko, baina zure txanda iristerako gaia aldatu egiten zen, eta erabat desentonatzen zuen zure bertsoak". Saio ostean beti tabernara joaten zirela ere gogoan du Urdangarinek: "helduei ardoa eta gaztetxoei mostoa aterata, etxera joaten ginen". Noizean behin enbidoak ere izaten omen ziren "Sagardotegira joango al gara?", eta momentuan erabakitzen zuten, ez ziren bi aste lehenago planifikatutako afariak izaten.

Udaletxeko saio horien artean bat bereziki du gogoan: balkoitik Joseba Tapiak trikitixa jo eta besteek "Egun da Santi Mamina" doinuan plaza osorako kantatu zutenekoa.

Lehenengo belaunaldiak (Anatx, Aristorena, Soroazabal...) utzi eta belaunaldi berriak (Urdangarin, Zelaia, Irazu, Agirre, Mendiluze...) eutsi zion asteartetako bilerari. Belaunaldi hau bertso eskolatik pasatkoa zen, lehendik ere elkar ezagutzen zuten, eta talde bezala funtzionatzen hasi ziren, bertsotarako

Asteartetako bilera,
Biteri kultur etxean
bildu zen batean.
(Argazkia: Xenpelar
Dokumentazio
Zentroa).



Gaur egun ere
erronda da
Hernaniko
bertsolari berrien
lehenengoetako
plaza. Ondoko
irudian, Iraulio
Panttaloneren
antzerkia, Bertso
Lata batean.
(Argazkia:
Hernaniko kronika).



ez ezik, beste plan batzuk egiteko ere elkartuz.
Horrela, 1991n taldeari izena jarri zioten. Tiloseta-
ko frontoi atzean, pilotako lokala zen hartan egiten
zituzten afariak Gipuzkoako Txapelketa prestatze-
ko. Afari horietako baten ostean sortu zen *Iraulio
Panttalone* izena. Eta baita bere imno edo koplak
ere:

Iraulio Panttalone
hori da izena, ene!
Gure ondoan dabiltzan danak
ibil daitezela erne

Udaleko Euskara Batzordearen ekimenez eta
Iraulio Panttalonek antolatuta, Errege Eguneke
lehen bertso saioa egin zen 1992an: Anatx, Lazkao
Txiki, Jon Lopategi, Jon Sarasua, Iñaki Murua eta
Joxe Luis Urdangarin aritu ziren. Ordura arte
Hernanin ez zen festaz kanpoko saiorik eta geroztik
saio hori urtero egin izan da. Gainera, 1995etik
gaur arte saio horren inguruan bertso aste bat,
Bertso Lata osatu da. Horrez gain, *Iraulio Pantta-*
lone koadrila, "bertso kabiya" edo taldeak hainbat
modu aurkitu ditu kalea aztoratzeko: Hernaniko
Txapelketa, sagardotegitan saioak, bertso antzerki-
ak eta bertso musikatuak, helduentzako bertso
eskola...

Bertsotan bizitzeko aukera eskaintzen du *Iraulio
Panttalonek*. Bertso eskolatik ateratzen diren gaz-
teen biltzeko gunea da. Jada irakaslerik gabe,
elkarrengandik ikasteko. Peña Otaño, Ur-Mia eta
Aranoko San Roke elkarteetan biltzen dira urte
osoan. Elkartetan gustura afaldu eta nahi adina
kantatzen dute. Besterik gabe gozatzeko biltzen
dira, momentua disfrutatzea baino hurrunagoko
helbururik gabe. Horrela, bertsoa bizitza osoan

lantzen dute, bertsoa astean behingo klase izate-
tik, afizio izatera pasatzen da.

1983-1988. IKASTOLA ETA ESKOLETAKO BERTSO ESKOLAK

Ikusi dugu Amurizaren ikastarotik nola sortu zen
asteartetako bilera, egungo *Iraulio Pantalone* ber-
tso kabiya. Amurizaren ikastarotik atera zen beste
zutabea, ikastoletan sortu ziren bertso eskolak,
ezagutuko ditugu jarraian. Urumean, Langilen,
Jauregin eta Ereñotzun hasi ziren bertsolaritza lan-
tzen, eta garai hartan oso garrantzitsua izan zen
irakasle eta gurasoen lana ere.

Urumea ikastola. Urumean Maritxu Mariezkurrena
zuzendariak ahalegin berezia egin zuen bertsolaritza
lantzeko. Joxemari Gabiria izan zen lehen irakaslea
eta lehen ikasleak Pablo Joxe Aristorena eta Jon
Eizmendi, besteak beste. 4. eta 5. mailan hasten
ziren Gabiriarekin bertsolaritza lantzen: bertso zaha-
rrak kantatzen eta puntuka jartzen zituen ikasleak,
beste inolako azalpenik eman gabe. Ikasle denen
arteana bahea pasa eta erraztasun gehiena zutenak
eta euskara maila ona zutenak zirikatzen zituzten, 6.,
7. eta 8. mailetan klasez kanpo egiten ziren bertso
entrenamenduetara gonbidatuz: hauek asteazkene-
tan ikastolan geratzen ziren bazkaltzen, eta fideo
zopa eta patata tortila jandakoan, Mikel Mendizabal
bertsolaria etortzen zen talde honi klasea ematera.
"Mikel Mendizabalek metodologia egituratuagoa
ekartzen zuen, eta teknika lantzen genuen. Batez
ere idatziz egiten genuen, oso maila desberdineko
jendea biltzen ginelako" kontatzen du Joxe Luis Ur-
dangarinek. Beranduago Manuel Beraza apaiza
aritu zen klase osoari bertsolaritza ematen, euskara
klasearen barruan. Bertsolaritzaren historiari eta doi-
nuei ematen zien garrantzia handia, bertsotako kul-
tura zabaltzeko. Don Manueli Gregorio Olasagastik
hartu zion txanda. Urdangarinek kontatzen duenez,
"Gregoriok asko lagundu zigun, beste ikastoletara
eramaten gintuen kantatzera: gure lehen saioetako
Adunako eskolan izan zen, bera hangoa zen-eta".
Ikastetxez-ikastetxe kantuan aritzen ziren bertsolari
gaztetxoak zirkuko animaliatxoak bezala aurkezte-
n zituztela kontatzen du: "orain ikusiko duzue, lau hitz
emango dizkiegu eta bertso bat kantatuko dute!
esaten zieten ikasleei". Asteazken eguerditan biltzen
ziren gazteek gero eta gehiago egiten zuten bertso-
tan eta aparteko laguntza behar zutela ikusita,
1986an Pablo Joxe Aristorena ikaslea jarri zuten
gazteagoen irakasle Urumea ikastolan. Oarson bil-
tzen ziren, ostiral arratsaldetan, baina klase osoa ba-
patean egiten zuten, lehen aldiz. Aristorenak utzi
beharra izan zuenean, Jon Eizmendik hartu zuen
bere lekua. Urdangarinek aitortzen duenez: "Uru-
mea ikastolan horrelako bultzadarik izan ez bagenu,
guk ez genuen bertsotan ikasiko. Guri erraztasun
guztiak ematen zizkiguten".

Langile ikastola. Langile ikastolan, berriz, Juanjo
Uriak aritu zen irakasle, eta Anatx ere laguntzera joa-

ten zitzaion: "Uriak bazekien umeak eramaten. Ez
zen batere erraza, baziren elementu ederrak, Gorka
Tolosa, adibidez, oso azkarra, gelditi egon ezin duten
horietakoa" dio Anatxek. Klasez kanpo ematen
zuen Uriak bertsolaritza, ostiral arratsaldetan.
Sorrerako urte hauetan Ixiar Otamendi, Ixiar Egigu-
ren eta Eli Igartza baten ekimena eta lana ere oso
garrantzitsua izan zen, haurrei bertsolaritzarekiko
zaletasuna bultzatzeko, bertso eskolan izena eman
zezaten animatzeko... bertsolaritza klasea ere as-
kotan joaten ziren irakasle hauek, arduratuta, jarrai-
pena gertutik egiteko. 20-30 haur izaten ziren klase
horietan, eta bigarren urtetik aurrera, idatzizko kla-
se horren segidan, bapateko saioa egiteko 4-5
ikasle geratzen ziren, idazten erraztasuna lortu zu-
tenak. Garai hartako ikasleak izan ziren, besteak
beste, Unai Agirre eta Eñaut Agirre, Gorka Tolosa,
Aitor Mendiluze, Iker Osa, Jon Iraola, Iratxe Apaol-
aza, Itziar Eizaguirre...

Auzoak. Auzoetako eskoletan ere bertsolaritza
lantzen hasi ziren 1983 inguruan: Jauregiko esko-
lan irakasle aritu zen Anatx. Ereñotzun, berriz,
Juanjo Uriak hasi zen, eta bigarren urtean Anatxek
hartu zion erreleboa. Beranduago Urdangarin aritu-
ko zen, 91tik 93ra. Ondoren, Ereñotzun bertsolari-
tza sustatzen lan handia egindako Florian Oiarbide
bertso jartzailea aritu zen auzoko bertsolari gazte-
ak ateratzen eta 2000. urte inguruan hartu zioten
erreleboa Ibon Miner eta Aritz Zerainek.

Lehen metodologia. Garai hartan ez zegoen ber-
tsotan irakasteko metodologiarik teorizatuta, eta li-
buru, zinta eta gainerakoak oso urriak ziren. Juanjo
Uriak bere kasa programatu behar izan zuen urte
osoa, ordurako ikastoletan bertsolaritza lantzen ha-
si zen Mikel Mendizabal bertsolariaren orientabide-
ekin. Hona klaseak nola antolatzen zituen: Hasiera
beti bertso kantari egiten zuen, fotokopiatutako
bertso zaharrak banatuta eta lehenik doinua ikasten
jardunda. Ondoren bertsolaritzaren historiari buruz-
ko azalpen batzuk ematen zituen, garai bakoitzean
zein bertsolari izan ziren nagusi, bakoitzaren ezau-
garriak, bertsorik ezagunenak... Ondoren bertsoak
osatzeke ariketak egiten zituzten, ximpleenetatik
hasita: errima zerrendak idatzi, kopia txikiak idatzi,
kopia handixeagoak, bertso txikiak, gero handixe-
agoak... Anatxek kontatzen duenez, "Paperean ber-
tsoak betetzea, errima zerrendak osatzea... Hori
berria zen, lehen ez zegoen".

Egindako lanaren ordainetan, oso gustura zegoela
gogoratzen du Uriak: "lan bat egiten ari ginelako
eta jendea astero-astero etortzen zelako. Baina,
hemendik Lazkao txiki bat edo Uztapide bat aterat-
zea... Inork ez zuen espero eman dituen emaitzak
ematerik". Baina lehen kurtsoetik hartu zituen zorio-
neko ezuste txikiak: "konturatu nintzen haur ba-
tzuek bazutela erraztasuna bertsoak logika batekin
idazteko". Poliki poliki joan zen konfirmatzen
Amurizaren teoria. Bapateko taldea pausoak ema-
ten hasi zenean, lehenik kopia osatzen eta gero
bertso osoak kantatzera iritsi zirenean, jabetu zen



Uriak: "hau posible da". Horrek eraman zuen klasea hobeto prestatzera, kanpoko materiala eskuratu eta klasera eramatera... "Urteekin ikusi da posible ez zena bentzutu dugula" dio Uriak egungo ikuspegitik "Baina betikoa: ikasi daiteke, baina berezkoa daukanak ikasi egiten badu, askoz gehiago egingo du. Nabaritzen da soilik ikasi duenaren eta berezkoa ere baduenaren arteko aldea".

Badatoz bertso eskolako lehen bertsolariak.

Hernanin, besteak beste Anatx, Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendi izan ziren plazaratutako bertso eskolako lehen belaunaldia (nahiz eta Anatxek bere kasa ikasi zuen, bertso eskolarik jaso gabe). Anatxek jada eskolarteko lehen txapelketan, 1981ean, kantatu zuen. "Eskolarteko txapelketak antolatzen aritzen zen Mikel Mendizabal bertsolariak lan handia egin zuen gu plazara ateratzeko" gogoratzen du Anatxek. Handik aurrera plazan kantulagun izan zituen Aretxabaletako Almen bertso eskolatik ateratako Jon Sarasua eta Arantzazu Loidi, Azpeitiko Xabier Euskitze... Lehen saioa San Inaziotan Altzon egin zuela du gogoan Anatxek eta geroztik, Lizartzan, Oiartzunen... inguruko herrietan aritu zirela. Kartelak eta denak ateratzen zituzten saioa iragarri, baina "maiz gure burua aurkeztu behar izaten genuen, bertsolariak ginela", gogoratzen du umorez: "Behin Usurbilgo Kalexarrera joan gara Euskitze, Sarasua, Izarzelai, Loidi eta ni, orduan ere tripahandiena ni izango nintzen... esan dugu bertsolariak ginela eta ea jai komisioa non zen... 'Zuek bertsolariak? Aditu al duk, hil' edadeko gizon batek besteari. 'Neska ere bai? Besterik ez dugu behar! Horako tripa handi horrek bai, (Anatxengatik) akaso zeozer egingo du, baina...'. Garai hartan 15 urteko gaztetxo bat bertsotan ikustea erabat harrigarria zen: "Bertsolariak izan behar zuen edadeko gizona, zapelarekin, mutur gorria. Neska ere bertsotan! Mutlikozkorrek egitea ere arraroa zen". Jolasean, zertan zebiltzan gehiegi jabetu gabe, ondo pasatzeagatik bakarrik aritzen zirela kontatzen du: "Plazan ere librean asko egiten genuen, ordu erdi askotan, biren artean".

Klasean ikasitakoa, kalera. Bertso eskolatik bertsolariak atera dira, baina bertso eskola bera ere sorreratik bertatik atera da kalera, ez da gelako lau ormen barruan geratzeko jaio. Hasierako urte haie-tan ere Urumea eta Langileko bertso ikasleak ikastolaz ikastola ibiltzen ziren saioak eginaz, bakoitza bere aldetik. 3-4 lagun joaten ziren inguruko herrietara, prestatutako bertsoak eta bapatekoak ere kantatzera. Uriak gogoratzen duenez: "Harreman hori oso aberatsa zen: orain harremanak oso hedatuak daude, baina orduan ez zegoen ezer, eta Oiartzungo 4 gazte Hernanira etortzea sekulakoa zen, euren artean hitz egiten zuten ezagutzen ez zuten eta deskubritzen ari ziren mundu horretaz, bertsolaritzaz alegia, ea ausartzen ziren kantatzera edo ez...". Santa Ageda bezperan ere ateratzen ziren bi ikastolak herrira. Prestatutako koplak eramaten zituzten, besteak beste Zinkoenea tabernara iristen zirenerako. Sagardotegira ere joaten ziren Langilekoak urte-



Joxe Luis Urdangarin izan zen herriko bertso eskolako lehen irakasleetakoa.

an behin, bertsolarien eskola zaharra probatzeko. Urumea ikastolaren jaialdi eta ekitaldietan ere bertako ikasle bertsolariek kantatzen zuten.

Herrian edozein ekitalditarako bertsolariak behar zirenean ere gaztetxoengana jotzen zen, "oraindik bertsotan ondo ez bagenekien ere" Urdangarinen hitzetan. Molotoff irratiko festa zela, Txalaparta eguna... Elurtxori elkarteak ere urtero antolatzen zuen saio bat, bi bertsolari handi eta herriko bi gazterekin. Horrek aldaketa handia ekarri zuela kontatzen du Uriak, izan ere, ordura arte "Pentsatzen genuen Hernanin bertso saioak egiteko beti kanpoko bertsolariekin aritu beharko genuela".

1989. BITERI: HERRIKO BERTSO ESKOLA

Langile ikastolan bertso irakasle ziren Juanjo Uriak eta Itziar Otamendik deitu zieten bertsotan gehien egiten zuten Urumeako gazteei, Iñaki Zelaia, Jon Eizmendi eta Joxe Luis Urdangarini, bi ikastoletako bertso eskolak batu eta Hernaniko bertso eskola sortzeko. Horrela, Biteri kultur etxean hasi ziren klaseak ematen Zelaia, Eizmendi eta Urdangarin, Langileko bertso eskolako lehen belaunaldia oraindik gaztetxoa izaki. Herriko bertso eskola sortu zenetik inplikatu zen udaletxea ere.

Herriko bertso eskola sortzeak aldaketa handia ekarri zuela kontatzen du Urdangarinek: "Guk, gure garaian, bertsotan egiten zuten Langileko ikasleak Karmelo Baldan ezagutu genituen, Eskolarteko Txapelketan. Orain Hernaniko ikasle denek dute bertsolaritza ikasteko aukera, lehen ikastetxe batzuetan bakarrik zegoen".

Geroztik urtero ikastetxe denetatik pasatzen ziren bertso eskolarako deialdia egitera, eta ikastoletan

egindako lana zein garrantzitsua den hor nabarmentzen dela gogorarazten du Urdangarinek: "Ikastetxeetan irakasleek bertsolaritza sustatzen zuten einean umeek izena ematen baitzuten bertso eskolan". Mailaren arabera, hiru talde egiten ziren: hasiberriak, bertso eskolan urte batzuk eginik bapatean hasteko zorian zirenak, eta bapatekoak. Lehen bi taldeetan 15 ikasle inguru izaten ziren bakoitzean, eta bapatekoan 8 inguru.

Mikel Mendizabalek Urumea ikastolan eurei irakasle teko erabilitako metodologia erabili zuten irakasle hauek ere Biteriko bertso eskolan. Lehen egunetik egiten zen paperean eta bapatean, bitatik klasean, baina kurtso hasieran gehiena idatziz egiten zen, eta kurtso bukeran, erraztasuna irabazi ahala, gehiena bapatean. Bapatean egiteko ariketa oso errazetatik zailagoetara pasatzen ziren: bakoitza esaldi bat esanaz hasten zen, neurri eta errima ahaztuta. Bigarren txandan, gauza bera esan behar zuten baina errimatuz. Kurtsoa aurrera joan ahala, doinuarekin egiten zuten. Urdangarini oso ahozapora ona utzi diote urte horiek: "Oso esker oneko lana da: Ez dut inor ezagutzen bertsoan ikasi nahi izan eta ikasi ez duenik". Eta denborarekin jende askok kantatzeari uzten badio ere, zale eta aditu izaten jarraitzen dutela gogorarazten du, "eta masa kritiko hori ere oso beharrezkoa da". Lehen helburua garbi zuen Urdangarinek: ondo pasatzea. "Guk ez genuen bertsoan jarraitu txapelketako finalean kantatu genuelako, guk jarraitu genuen sekulako giro ona genuelako, eta primeran pasatzen genuelako", horra etorkizuneko bertso eskolarentzat ere formula. Talde giroa lantzeko, Goizuetara asteburu pasa antolatu zuten 1995ean Tolosako bertso eskolan irakasle ari zen Irazurekin elkarlanean. Geroztik makina bat asteburu pasa egin ditu bertso eskolak.

Paulo Ttikiya da gure bertso eskola. 1996an etorri zen irakasle aldaketa, aurreko hiru urte utzi beharra izan zutenean. Baina ordurako ez zen falta bertso eskolak emateko irakaslerik. Hurrengo 10

urtetan hainbat irakasle pasa ziren Biteriko bertso eskolatik: Aitor Mendiluze, Iker Osa, Itziar Eizagirre, Bakarne Urreaga, Karmele Apezetxea, Joxe Anjel Aranburu eta Estitxu Eizagirre. Garai honetan elkarre bezala eratu zen eta Paulo Ttikiya izena hartu zuen, Hernaniko bertsolari handiaren omenez.

Bertso eskolara ahalik eta jende gehiena etortzea zen irakasle hauen helburua, eta hasitakoek gustura jarraitu zezatela. Uda pedagogia berrien bila pasatu zuten: bertsolaritzaren historia ikasteko karta-jokoak, eurentzat propio jarritako bertsoak zirkoari buruz edo ihauteriez, parkean jolasteko altxoraren bila errimatu modukoak... Esan liteke bertsoan ikasteko mila eta bat malabarismo edo jolas asmatzeko joera ere izan zela: bertso tribiala, bertso antzerkia, bertso play-back, bertso-pilota... bertsoa jolas batekin lotu beharra balego bezala, bertsoa bera nahikoa jolas ez balitz bezala. Badirudi orain bertsoan irakasteko metodologian lehengora itzultzen ari garela, baina desberdin. Kendu disfrazak bertsoari, kendu ariketak, eta hasi kantuan.



Belaunaldi berria, bertso eskolaren lokalean: Unai Gaztelumendi, Asier Azpiroz, Arnaitz Lasarte, Oier Iurramendi eta Amaia Otxotorena.

2003an, Eulaten (Nafarroa) egin zituen udalekuak Paulo Ttikiya bertso eskolak.

Esan liteke urteekin esperientzia lagun, klaseak gutxiago prestatzen direla, edo positiboan esanda, "bapatekotasunari leku gehiago ematen zaiola". Lehen urte haietan ariketa mordoa eramaten zuten irakasleek klasera, ordubetea egin zitezkeenak baino gehiago. Denborarekin, irakasleak klasera joan eta ikasleen jarreratik jolasa edo gaia ateratzen saiatzen dira, euren betiko jolasetan bertsoa edo hitz-jokoa sartzen...

Klasez kanpoko ekintza ugari egin izan dira azken 10 urteotan: 2000. urtetik Aste Santutan asteburupasa joaten dira: egunez klase bereziak egiten dira eta gauzez saioak. Frontoia ere ez da urruti izaten, eta musak kentzen dizkie ordu libre gehienak. Azken gauean txapelketa xelebrea egiten da, eta kasualitatez, urtero enpatean bukatu da.

Udalekuak ere egiten ditu bertso eskolak. 5 egunez bertsotan, zirikan, putzuan eta frontoian gozatu bat hartzen dute. Bertsoa bera ere bizimoduaren zati bihurtzen da, lagunak ez dira ikaskideak, eta elkarrekin bizitutako esperientziek taldea sendoago egingo du hurrengo ikasturtean. Era berean, lagun berriak egiten dituzte, sarri beste herrietako bertso eskolako kideekin nahasten baitira.

2003. BERTSO ESKOLAKO LOKALA

Bertso eskolak, bere ibilian pilatzen ari zen esperientzia, kide kopuru gero eta handiagoa, antzerkietako monigoteak, liburuak... gordetzeko bere espazioa behar zuen. Eta 2003. urtetik, udalak utzitako lokala du estalpe. Bertso eskolako gazte belaunaldiak, 15-17 urterekin, badu elkartzeko bere lekua. Hauek larunbatetan eta udako oporretan ere maiz elkartzen dira hitz egin eta kantuan aritzeko. Karrera bertan estudiatu duenik ere bada.

Nolako gela, halako harremana. Bertso eskolako bi kidek egindako mikro pare, kajahorros baten desalojotik eskuratutako armairua, arbela eta mahai exagono bat. Horra gaurko bertso eskola. Horman, bertso eskolako eskurik abilenak besteen aurpegiel malizia dosi handi xamarrez egindako karikaturak, eta maisu handien argazkiak: Txirrita, Bilintx, Lazkao Txiki... Klasearen egiturak berak, asko baldintzatu du oraingo bertso eskolaren planteamendua: irakasle eta ikasleen arteko harremana, ierarkiak... Beñat Gaztelumendik kontatzen duenez: "Irakasleak beste bat gehiago izan behar du klasean, ez du irakasle papera jokatu behar. Bertso eskolan denok maila berean gaude, ez da komeni bata bestearen gainean jartzea, saiotan denok elkarrekin kantatzen baitugu. Gu Biterin hasi ginenean, irakaslearentzat beste mahai bat zegoen eta ikasleentzat aulki-pupitreak, eta beste era batera ikusten zen irakaslea. Orain mahai beraren bueltan exertzen gara...".

Hurrengo belaunaldia. Bertso eskolaren etorkizuneko belaunaldia, hurrengo erreleboa, iritsi da: Amaia Otxotorena, Oier Iurramendi, Arnaitz Lasar-

te, Iñaki Otxotorena, Beñat Gaztelumendi, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi, besteak beste. Talde heldua da, eta eurak aritzen dira, Gorka Tolosa beteranoekin batera haurrei klaseak ematen. Asteburupasak eta udalekuak antolatzen ere trebatu dira eta *Iraulio Panttalone* taldearekin biltzen hasi dira saioetan eta kantatzeko. Bertso eskolak beste urte batzuetarako arnas berria du, Arnaitz Lasartek ziurtatzen duenez: "Oraingo irakasle kateari esker, urte batzuetarako ez dut irakasle faltarik ikusten. Baina hurrengo belaunaldira saltoa dago, 4 urteko aldea". Horra bertso eskolak zikloka izaten duen erronka, belaunaldi saltoak betetzea.

Ikasleen umeak ikasle. Aspaldiko urtetako ikasle kopuru handiena izan du bertso eskolak 2006. urtean (eskerrik asko Euskal Herriko Txapelketa 2005!). 4 taldetan banatuta 35 ikasle inguru aritu dira, txikiak 4 urte eta handiak 13 dituela. Baina adin diferenteko jendea nahasian ibiltzen da, gazteenek zaharrenengandik ikas dezaten. Eurak ere gustura daude horrela: "Beste aktibitateetan bakoitzak bere taldea du, eta beste taldeekin ez da harreman handirik izaten. Hemen 2 urte zaharragoekin eta gazteagoekin joaten gara asteburupasa" dio Amaia Otxotorena gazteak.

Bigarren ume belaunaldia ere jada bertan da: bertso eskolan aritutakoen seme-alabak iristen hasi dira, Anatxen bi alabak, esaterako. Baina Anatxek garbi du berak ez dituela bertso eskolara bultzatzea: "Behartuta eta ez, jostatuz egin behar da bertsotan, orain bertso eskolan hartzen duzuen bezala. Zenbat gurasori diskutiitu diodan hori! Euren semea bertso eskolara eramatea nahi zutela, handik bizkorrak ateratzen direla-eta... eta ezetz esaten nien, gogorik gabe baldin badoa alferrik joango dela". Bertsolari, maisu eta orain bertso eskolako guraso den Anatxek, gauza bakarra eskatzen dio bertso eskolari: "Jolasa, esijentziarik gabe. Bertsoa ez da asignatura. Guk ere, besterik gabe, bertsotan ikasi nahi genuen lagunarteko afarietan kantatu ahal izateko". Orain giroak ere laguntzen du bertso eskolara gustura etorri daitezen: gazteen artean eta gizartearen bertsotan egitea natural hartzen da, eta baloratu ere egiten da, lehen ez bezala. Anatxek hori garbi du: "Nik ez nuen gauza bat izango dute nire alabek, agian. Gure etxean kontrario amorratuak nituen bertsoekin. Gure aitarentzat bertsolaria azken miserablea zen, ez nuen bultzada handirik izan etxean".

Ikastetxeetan ere lantzen da. Egun ikastetxeetan bertsolaritza lantzen jarraitzen dute, bertako irakasleek eusten diotelako ezinbesteko lan horri eta gainera Gipuzkoako Bertsotale Elkarteak eskaintzen dituen klaseak ere jasotzen dituztelako, Unai Muñoa izanik irakasle. Beraz, irakasleak bertso eskolara datozenerako doinu pare bat ikasita dituzte, eta bertsoari buruzko ezagupen zabalagoa.

Astearen bukaera. Hamaika gauza aldatu da 25 urtean Hernanin, bertsolaritzan, eta bertso eskolan. Anatxen hitzetan, "Orain bertsotan ikaraga-

ri egiten da, neska-mutil kozkorretatik. Baina gaur txispa galdu da, erantzuteko txispa, tiki-takakoa. Lehengo librekoa ere galdu egin da asko, orain erabat gaiekin kantatzen dute". Baina dena ez da aldatu gaur bertsoan ikasten ari diren gazteengan. Belaunaldi berriko kide Asier Azpirozek honela definitzen du, 2006an, bertso eskola: "Bertso eskolak niretzat beti esan nahi izan du astearen bukaera".

Juanjo Uriak bertso eskolaren 25. urteurrenerako jarri zuen bertsoak borobiltzen du bertso eskolaren historia eta oraina:

***Bertsotan ikas ote zitekeen
hainbat aldiz ametsetan
ta ilusioz blai sartu ginen
eskola-ikastoletan
ahalegin hura zatekeelako
bertsoaren mesedetan
ta gaur ikusi dugunarekin
saio oparo honetan
esan daiteke erreleboa
dagola esku onetan***

TXAPELKETAK

***Haur eta gaztetxoentzat egiten diren
Eskolarteko Txapelketan parte hartzen
dute Hernaniko bertsolariek umetan,
geroago gazte sariketak probatzen dituzte
eta azkenik Gipuzkoako, Nafarroako eta
Euskal Herriko Txapelketak. Hernaniko
bertso eskolatik ateratako bertsolariak
podiumera igo dira behin baino
gehiagotan. Txapelketekin kritiko izaten
ere badakite, hala ere.***

Ume-umetatik dute txapelketetan parte hartzeko aukera bertso eskolako ikasleek. 1981ean jokatu zen Eskolarteko lehen Txapelketa, eta besteren artean Juanjo Uriak ere aritu zen antolatzen: "Eskolarteko Txapelketak eragiteko intentzioa zuen: itzal handiagoa, oihartzuna zuelako eta gazteei aukera emateko". Hala ere, garbi aitortzen du: "Oso gogorra zen umeak kantuan ikustea. Orain ohitu egin gara, baina ni asko aztoratzen nintzen haurrak mikroaren aurrean kantuan ikusita".

Joxe Luis Urdangarin gaztetxotan kantuan aritutakoa da Eskolarteko Txapelketan, eta ondoren irakaslearen larrutik ikustea tokatu zitzaion. Oraitzapez gazi-gozoa du Eskolarteko Txapelketa hoietaz: "Guretzat kanporako leiho bat zen. Urte osoa beti lagun talde berarekin kantuan pasatzen genuen, eta bapatean Eskolartekoan ikusten zenuen bazela jende gehiago gauza bera egiten zuena. Alde horretatik oso esperientzia ona zen. Baina batzuentzat estresbide handia zen, eta badut lagun bat orduz geroztik gehiago kantatu ez duena". Anax ez da hain umetatik txapelketara

joatearen aldekoa: "Berehala hasten dira txapelketan eta aurrera bazoaz bazara zerbait eta bestela batere ez. Norgehiagoka jartzen zaie hasieratik". Urdangarin ere oso kritikoa da sistema horrekin, "Justu urte osoan landutako filosofia ere hausten duelako txapelketak. Klasean ez dugu euren arteko lehia bultzatzen eta txapelketan figurak bultzatu izan dira". Urdangarinek aitortzen du gehiago sufritu zuela irakasle bezala, kantuan baino.

Alde positibotik begiratuta, umeak motibazio handiz biltzen dira bertso eskolan txapelketarako entrenatzeko, eta ikaskideak animatzera joaten dira pankarta eta guzti. Era berean, partehartzea bera baloratzen da Hernaniko bertso eskolan gehien, jendaurrean kantatzera animatuz.



Jon Eizmendi,
Eskolartekoa
irabazi zuen lehen
hernaniarra.
(Argazkia: Xenpelar
Dokumentazio
Zentroa).

Hona Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketetan Hernanira ekarritako txapelak:

- 1983an,** Jon Eizmendi, txikien mailan.
- 1984an,** Jon Eizmendi, txikien mailan.
- 1986an,** Pablo Joxe Aristorena, handien mailan.
- 1987an,** Unai Agirre, txikien mailan.
- 1988an,** Unai Agirre, txikien mailan.
- 1989an,** Unai Agirre, txikien mailan.
- 1990ean,** Anjel Telleria, Iñaki Lete, Maialen Lujanbio eta Gorka Tolosak osatutako taldeak, txikien mailan.
- 1991n,** Maialen Lujanbio, handien mailan.
- 1992an,** Aitor Mendiluze, handien mailan.
- 1993an,** Aitor Mendiluze, handien mailan.
- 1994an,** Maialen Lujanbio, handien mailan.
- 2000n,** Peru Iurramendi, Aitor Larreta, Unai Gaztelumendi eta Beñat Gaztelumendik osatutako taldeak, txikien mailan.
- 2001ean,** Jon Otxotorena, Aitor Larreta, Unai Gaztelumendi eta Beñat Gaztelumendik osatutako taldeak, txikien mailan.

2001ean, Agin Rezola, handien mailan.
2002an, Beñat Gaztelumendi, handien mailan.
2003an, Beñat Gaztelumendi, handien mailan.
2005ean, Unai Gaztelumendi, handien mailan.

Gipuzkoako, Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketetan ere utzi du haztarna bertso eskolak. Txapelketa garaian bertsolari helduak inoiz baino batuago aritzen dira entrenatzen, elkarri gaiak jarri eta aholkuak ematen. Entrenamenduen barruan sartzen da afaldu eta lagunartean animoak altxatzea ere. Eta txapelketa osoan zehar, koadrila handian joaten dira saioa ikustera, arraltsade edo egun-pasa. Hona Gipuzkoako eta Euskal Herriko Txapelketetan Hernaniko bertso eskolan edo asteartetako bileran ibilitako bertsolariek lortutako postuak eta partehartzea:

Euskal Herriko Txapelketa 1982.

Partehartzaileak: Fermin Argiñarena eta Joxe Argiñarena.

Euskal Herriko Txapelketa 1989.

Partehartzaileak: Pablo Joxe Aristorena, Manu Gomez, Joxe Mari Izeta, Nikolas Izeta, Joxe Mari Mujika "Anatx", eta Jose Manuel Oiartzabal.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 1991.

Partehartzaileak: Jon Eizmendi, Joxemari Izeta, Nikolas Izeta, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin, Juanjo Usarraga eta Iñaki Zelaia.

Euskal Herriko Txapelketa 1993.

Finalista: Jokin Sorozabal. Partehartzaileak: Joxe Luis Urdangarin eta Jokin Sorozabal.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 1995.

Txapelduna: Aitor Mendiluze. Txapeldunordea: Jexux Mari Irazu. Finalistak: Iñaki Zelaia, Jokin Sorozabal, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze. Partehartzaileak: Unai Agirre, Iker Alustiza, Jon Eizmendi, Jexux Mari Irazu, Nikolas Izeta, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia.

Euskal Herriko Txapelketa 1997.

Finalistak: Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio. Partehartzaileak: Xabier Legarreta "Arano", Unai

Agirre, Iñaki Zelaia, Maialen Lujanbio, Jon Eizmendi, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin eta Jexux Mari Irazu.

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa 1999.

Hiru taldek hartu zuten parte Hernaniren izenean, eta hirurak lehen bueltan kanpo geratu ziren. Partehartzaileak: Hernani-Txisplau taldea: Gorka Tolosa, Itziar Eizagirre, Aritz Zerain eta Maialen Lujanbio bertsotan, Xabier Etxeberria gai-jartzen eta Mikel Iturbe epaile. Hernani-Iraulio taldea: Joxe Luis Urdangarin, Jon Iraola, Iker Osa, Iñaki Zelaia eta Eñaut Agirre bertsotan, Xabier Legarreta "Arano" eta Maitane Legarreta gai-jartzen eta Joxe Anjel Oiartzabal epaile. Eta Hernani-Iñatzu taldea: Unai Agirre, Iker Alustiza, Ibon Miner eta Estitxu Eizagirre bertsotan, Mikel Peruarena gai-jartzen eta Juanjo Uria epaile. Andoain-Urnieta taldean ere, Hernanin bertsotan egiteko bildutakoez osatu zen: Joxe Mari Mujika "Anatx", Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze eta Jon Garmendia "Txuria" bertsotan, Joxe Fermin Argiñarena gai-jartzen eta Joxe Manuel Oiartzabal epaile. Eta txapelketa horretan Zarautzen kontra finala jokatu ondoren bigarren atera zen taldean ere, Erniope taldean alegia, bazen Hernanira bildutakorik: Jexux Mari Irazu, Aitor Usandizaga eta Amaia Agirre bertsolariak.

Euskal Herriko Txapelketa 2001.

Txapeldun-ordea: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Partehartzaileak: Unai Agirre, Aitor Mendiluze, Iñaki Zelaia, Aritz Zerain, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2003.

Txapelduna: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Partehartzaileak: Unai Agirre, Iker Alustiza, Joxe Anjel Aramburu, Estitxu Eizagirre, Jon Iraola, Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Ibon Miner, Iker Osa, Josu Oiartzabal, Agin Rezola, Joxe Luis Urdangarin, Aitor Usandizaga, Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2005.

Hirugarren postua: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Partehartzaileak: Iñaki Zelaia, Estitxu Eizagirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio.



Goiko argazkian, 1999ko Herri Arteko Txapelketa: Hernanitik hiru talde atera ziren, eta bertako bertso eskolan ibilitakoek Andoain-Urnieta taldea eta Erniope taldea ere osatu zituzten. Txapelketa hura izan zen azken aldiz belaunaldi zahar eta gazteak kantuan lotu zituenena. Ondoko argazkian, 2003ko Gipuzkoako Txapelketan, Juanjo Uriak Maialen Lujanbiori txapela jantzi zionekoa. (Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).



Hona Juanjo Uriak botatako bertsoa:

*Txirritan berri nik izan nuen
oraindik ume nintzala
ederki asko iragarri zun
izango zuen itzala.
Bera Hernanin gazte hasi zen
hemen Maialen bezala
ta gaur entzunda uste det pozik
aurrera dezakedala
gure herrian gaurdanik beste
Txirrita haundi bat badala.*

OINARRIZKO KANPAMENTUA

Kanpindendak ere lau alde. Lau puntu bertsoak. Eta zortzi soka, zortzi lerro zuzen, lurrera lotzen dutenak.

Gure espedizioa ez da gailur bila abiatzekoa izan. Nahiz eta banaka batzuek, joanean-joanean gorako bidea egin... Imaginatu mendizale bat, ahalegin gorrien ostean zortzi mila metroko gailurrera iritsi eta wal-kiaz bestaldera inor ez duena.

Gure espedizioa ez da zeharkaldi zirkularrak egitekoa izan. Bertso eskolatik bertso eskolara. Ikasle hasi eta biran-biran irakasle bilakatu. Baina zenbaitek ibilbide hori aukeratu du, eta badoa... Imaginatu ibiltari bat bere pausoak laguntzeko inor ez daukana, ez bidaiderik joanean, ez belarririk etorreran, ez lagunik bidean jarraitzeko...

Gure espedizioak ez du kolorezko markarik zuhaitzetan, ez bide jakinik, ez iritsi beharrik. Ez du misiorik. Geure gustuz eta geure gustuagatik egiten dugu egiten duguna. "...eta zabal zazu".

Gure espedizioak ez du esponsorrik. Ez du patrozinadorerik, ez arropetan, ez buruetan. Gure espedizioak ez du mailarik eman beharrik. Batzuek kamamila biltzen ari; batzuek bide berriak asmatzera jo; baten bat haitz baten kontra lo.

Gure espedizioa izan ere ez da espedizioa ere. Bizimodu bat. Nahi duena dago hemen. Atea beti zabalik, sartzeko, irteteko. Amodio harreman polit bat: lotu gabe ematen du; eman, eta emateko gogoia eman.

Neurri guztietarako ibilbideak bai baitira: 8A+, 9tx, 4H... Bertsoak zenbat neurri.

Nola izan bestela pasioan dabilenak goi-mendietako amets lainoen berri... Nola dasta gailurreko izotzetatik datorrenak kamamila bildu berria... Nola entzun sukalde lan itsuan ari denak bidea den misterioaz... Nola, oinarritzko kanpamenduan bildu ezik? Lau puntu eta zortzi lerroko kanpindendaren pean, nonahi inprobisatzen den gure oinarritzko kanpamenduan.

Maialen Lujanbio

IRAULIO PANTTALONE

Urte asko joan dira Juaniren tortillak janez ikastolako gimnasioan bertsoekin gozatzen hasi ginenetik eta urte guzti hauetan argi izan dugu, bertsoa jolaserako eta ondo pasatzeko tresna bat dela. Ondorioz, bertso eskolako lau hormetatik kanpo ateratzen saiatu izan gera beti.

Urruti daude gure bat bateko bertsogintzako lehen urratsak, udaletxeko gelatik atera eta kalean egindako bertso-triki kalejirak, edo arratsaldeko zortzitan Anatxek inprobisatutako sagardotegiak. Maisu bikainak genituen eta erakutsitako bidea ez zen txarra, orduan ikasle gazte gazteak ginenak oraindik ere lagun bikainak bai gera.

Ostiraletako bertso eskola ofiziala sortu eta bere bidea aurkitu ondoren, bai herrian eta bai gure artean beste premi batzuk sumatzen hasita, Iraulio Panttalone bertso kabiya sortu zen, besteak beste bertsoak kalean presentzi gehiago izateko helburuarekin.

Lehendabiziko alaketetako bat Errege Eguneko bertso saioa antolatzetik bertso lata antolatzera pasatzea izan zen, ezin izen hoberik aurkitu, herritarrek ondo dakitelako zenbateko lata ematen dugun. Gabonetako aste berezi honetan, kalean, egitarau barruan adina bertso izaten da egitarauz kanpo: bertso afari bereziak, asto karro gaineko kalejirak, herriko txapelketa azkarrak, bertso foto-matoia eta, nola ez, kale antzerkia. Azken honekin herritar asko sorpresaz harrapatuz, zenbat eta zenbat irribarre eta barre algara sortu ote ditugu, guk eraginak edo gure kontura egindakoak. Baina dena esan behar bada, lotsak galtzen ikasteko ere balio izan digu. Ekitaldiak ekitaldi, gero afaldu ederki eta maiteminduentzat Parix eta guretzat Yausika lemapean lepotik heldu eta segi aurrera.

Iraulio barruan ezin ukatu zenbait aterpetxetan pasatako asteburuek ere garrantzi handia izan dutela, bertsoa, pelota, eta parranda pixka bat uztartuz, gure memorian geratuko diren anekdota eta pasadizo asko sortu direlako.

Azken urte hauetan bertsoa sagardotegietara ere eraman dugu eta ni behintzat konturatu naiz, uste gabe bertso entzule bihurtutako baten esker on beroa bezalakorik ez dagoela, noski, sagardoaren laguntzari esker.

Kontuak kontu eta historiak histori, guretzat garrantzitsuena herriko bertsolari talde bat baino gehiago lagun koadrila bat garela jakitea da, eta koadrilak herrian, kalean, ibiltzen direnez gurean bertsorik ez da falta, eta ze ikasle finak datozen ikusita, ez da faltako.

Iñaki Zelaia